



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

AUZOZ AUZO

Udala eta Auzo Elkarleen
arteko bilerak



Herri
Partaidetza
Saila
Donostiako Udala

MORLANS BILERAREN LABURPENA

Eguna

2015/10/08

Ordutegia

19:00 – 20:30

Tokia

Udaletxea



DEITUTAKOAK

Morlanstarrak AE

Herri Partaidetza

Udal ordezkari politiko eta teknikoak

BERTARATUAK

Morlanstarrak AE/AV

Lehendakaria eta idazkaria.

Udaleko Partaideak

Duñike Agirrezabalaga, Zinegotzia
Iñaki Otamendi Teknikaria

HELBURUA:

Morlans-en hobekuntzak egiteko premiak eta proposamenak jasotzea, segimendua egitea eta auzoarekin lotutako proiektuei buruzko informazioa ematea.

Landutako gaiak

1. Aurkezpena
2. Morlanseko datu soziologikoak
3. Azken etxebizitza blokea
4. Elkartearen lokala
5. Amara Berriko gasometroa
6. Hiriko Puntu Kritikoen Mapa
7. Bidea
8. Olio edukiontzia Morlanseko goiko aldean
9. Berdeguneak Leire plazan
10. Soluzio integrala auzoko goiko aldeko mugikortasunari
11. Ibilgailuen udal gordailua
12. Donostialdeko Metroa eraikitzeke lanen eragina auzoan
13. Bilera auzo elkarteekin

Gaien azterketa

1. AURKEZPENA

Auzoetako eta Deszentralizazioko eta Erantzunkidetasun Zibikoko zinegotzi ordezkari Duñike Arrizabalagak hiriko auzo elkarteetako bakoitzarekin bilerak egiteko ekimen honen aurkezpena egin du. Lehenengo hartu-eman honi bigarren bilerak batek jarraituko dio udaleko atal desberdinetatik erantzuna emateko auzo elkarteek egindako eskaerei.

Morlanstarrak elkarteak bere ibilbidearen laburpena egin du. Hau da: Elkarateak 2010ean eman zituen bere lehenengo pausoak; saiatzen dira auzoa bere osotasunean ordezkatzeko (alde zaharra, goiko aldean, eta berriagoa, behealdean); auzoko gaiak eta danborrada antolatu dituzte, auzotarrentzako informazioa banatu dute buzoiz buzoiz; ikastaroak egin dituzte eta bilerak Morlanseko gaien inguruan; espero dute, Udalak Morlansen lokal bat utzi eta gero, lan horretan sakontzea eta beste jarduerak batzuei ekitea.

Herri Partaidetzako teknikariak bere burua aurkeztu du partaidetzarako erreferente gisa Morlanseko, eta bere eginkizuna gaur izango da bilerak dinamizatzea, gai bakoitzean egokia izan daitekeen informazioa ematea eta bileraren laburpena idaztea.

2. MORLANSEKO DATU SOZIOLOGIKOAK

Morlanstarrak elkarteak, 2015eko partaidetzazko aurrekontuen prozesuan, Morlanseko datu soziologikoak eskuratu ahal izatea eskatu zuen inguruaren profila hobeto ezgutzeko.

Zinegotziak azaldu du beste auzo elkarte batzuk ere adierazi dutela premia hori, eta Udalak lantalde bat jarri duela abian lurraldearen informazio guztia bilduko duen Datu Behatoki bat sortzeko, barne zein kanpo erabilerarako. Kontuan hartuko dira auzo elkarteak beren iritzia emateko erakunde horren lan esparrura gehitzeko kontzeptu interesgarrien gainean.

Nolanahi ere, Udala prest dago gaur egun dituen datu soziologikoak emateko, Morlanstarrak elkarteak erregistroan dagokion eskaera sartuta datu premia zehatz bat adieraziz gero.

3. AZKEN ETXEBIZITZA BLOKEA

Elkarteak azken etxebizitza blokeen egoerari buruz galdetu du. Bere irudipena da erabiltzen ez diren etxebizitza asko daudela bloke oso handi batean: 5 atalondo, 7 solairu, bi esku...eta ingurua hutsik dagoela ematen duela. Badakite etxebizitza horietako batzuk larrialdi egoeretan erabiltzen direla, Txomin-eneko uholdeetan edo Trintxerpeko sutean kasu, eta erabilera hori beharrezkoa eta interesgarria dela irizten diote. Elkarteak berak informazioa banatu zien buzoietan aldi baterako bizilagun berri horiei behar izanez gero Morlanstarrak elkartearekin harremanetan jartzeko.



Planteatu dute Udalak edo Eusko Jaurlaritzak aintzat har dezaketela elkarte etxebizitza bloke handi horri buruzko informazio eguneratua partekatzeko.

4. ELKARTEAREN LOKALA

2015ean Udalak udal lokal bat eman zuen lagapenean Morlanstarrak auzo elkarteak erabiltzeko: lokala egokitu beharra dago eta Morlanstarrak elkarteak informazioa eskatu du proiektu teknikoa idazteko prozesuari eta behar den finantzaketari buruz.

Zinegotziak azaldu du jakinaraziko diotela Morlanstarrak elkarteari proiektua idazteko teknikariaren izena eta elkarte harekin harremanetan jarri ahal izango dela proiektu teknikoaren edukiak zehazteko.

2016ko Aurrekontu Proiektuari begira, aztertzen ari dira 6. kapituluan kontu sail bat esleitzea udal lokalak egokitzeke.

Partaidetzako teknikariak gogorarazi du diru laguntzen deialdi bat izaten dela urtero auzo elkarteentzako mantentze gastuetarako. 2016ko martxoaren 31 arte du aukera Morlanstarrak elkarteak 2015eko gastuak justifikatzeko eta laguntzaren bigarren zatia jasoko du, eta urtarilean egingo da 2016 urterako laguntzen deialdia.

5. AMARA BERRIKO GASOMETROA

Auzotarrek eskatu izan dute auzoko ondare historikoa, zehazki Amara Berri ikastetxeko gimnasioan dagoen gasometroa, erabiltzeko eta ikusgai jartzeko proposamen bat zehaztea. Morlanstarrak elkarteak prest legoke laguntzeko auzoko ondarearen garrantzia nabarmenduko duen ekimen batean.

Gai hau Udaleko Hezkuntza Atalari dagokio. Zinegotziak jakinari du Trenbide Lagunen Elkartek proposamen bat egin diola Udalari eremu hori kudeatzeko eta Hezkuntza Atala aztertzen ari dela.

Elkarteak azaldu du gasometroa gimnasioan dagoela, eta zenbait elkartek asko erabiltzen dutela gune hori, betiere ikastetxearen oniritziarekin.

6. HIRIKO PUNTU KRITIKOEN MAPA

Morlanstarrak elkarteak hiriko Puntu Kritikoek Maparen prestaketan parte hartu zuen; adierazi du prest dagoela laguntzen jarraitzeko, eta planteatzen ari diren neurri zuzentzaileen berri izan nahi du. Auzoan dendarik ez egotea puntu kritiko horien egoera aldatzeko kontuan hartu beharreko beste faktore bat da.

Egoeraren azterketa-prozesua amaitu ondoren (memoria eskuragarri dago udal webgunean), puntu bakoitza, esku hartzeko aukerak eta ezarri beharreko lehentasunak aztertzen ari dira. Aurreikusita dago bilera bat egitea auzo elkarteekin proposatzen diren irtenbideak azaltzeko.

7. ZUBI-BIDEA

2015eko partaidetzazko aurrekontuen prozesuan auzotarrek beren kezka adierazi zuten bideak eragiten dituen zarata arazoak eta han izaten diren suizidioak direla eta.

Zinegotziak azaldu du Bide Publikoen aurtengo aurrekontuan 85.000 euroko kontu sail bat dagoela bidearen zati bat estaltzeko: Egiteko borondate politikoa dago eta barne izapidetze fasean, Udalean.

Beste alde batetik, elkarteak planteatu du behealdean TAO eremuan aparkaleku bat dagoela, oso gutxi erabiltzen dena, eta ez erabiltzearen eta iluntasunaren ondorioz, leku babesgabea dela. Uste dute leku hori haur parke bat edo kirol eremu bat izan zitekeela eta beren burua eskaini dute laguntzeko balizko proiektuaren azterketan hasieratik bertatik.



8. OLIO EDUKIONTZIA, MORLANSEKO GOIKO ALDEAN

Morlanstarrak elkarteak planteatu du olio edukiontzi bat behar dela Morlanseko goiko aldean.

Zinegotziak elkarteari eskatu dio udal erregistroaren bidez egin dezala proposamen bat olio edukiontzi berria jartzeko tokiaren gainean: Udalak eskaera horiek aztertzen ditu eta Morlanstarrak elkartearekin harremanetan jarriko litzateke proposamena aztertzeko.

9. BERDEGUNEAK LEIRE PLAZAN

Plazari praktikan zer erabilera ematen zaion aintzat hartuta, haren diseinuari buruz gogoeta bat egiteko eskatu du auzo elkarteak.

10. SOLUZIO INTEGRALA AUZOKO GOIKO ALDEKO MUGIKORTASUNARI

Morlanstarrak elkarteak eskatu du auzoko goiko aldeko mugikortasunari soluzio integrala ematea: errepide estua bi noranzkoetan, espaloi estuak eta etenak, asfalto hondatua, garraio publikoa iristeko urrun edo eskailera maldatsuetatik. Azaldu dute alde hartan pertsona oso edadetuak bizi direla, zirkulazio handia dagoela eskola irteeretan...

Gaia Udaleko Mugikortasun Zuzendaritzari dagokio: bere garaian gaia aztertu zuen eta ikusi zen auzotarrek iritzi desberdinak zituztela balizko irtenbideen inguruan. Une honetan, berriro heldu beharko litzaioke azterketari, auzotarrekin kontrastatu eta eguneratu egin beharko litzateke.



11. IBILGAILUEN UDAL GORDAILUA

Auzo elkarteak azaldu du udal gordailura iristeko seinaleztapen argirik ez dagoela, eta horren ondorioz, zerbitzu horretara joaten den jendea galtuta ibiltzen dela. Era berean, oinezko sarbide kofratu bat egin zen, baina ezin da erabili eta erabiltzaileak arrapatatik sartzen dira. Seinaleak jartzeko eta sarbide kofratuan zeozer egiteko eskatu dute.

12. DONOSTIALDEKO METROA ERAIKITZEKO LANEN ERAGINA AUZOAN

Donostialdeko Metroa eraikitzeke lanek auzoari nola eragingo dioten galdetu dute.

Zinegotziak azaldu du proiektuaren fase honetan ezin direla eraginak aurreikusi eta bere garaian emango dela gaiari buruzko informazioa.

13. BILERA AUZO ELKARTEEKIN

Zinegotziak azaldu du hiriko auzo elkarte guztiekin bilera bat egiteko deia egin dutela urriaren 19rako, lehenengo hartu-eman globala izateko eta legealdi berriko helburuen eta proposamenen kontu emateko.

**Eskerrik
asko!!**